2.- Federazioko presidenteak, edo halakorik ez dagoenean, presidenteordeak Zuzendaritza Batzordeko bilerak zuzenduko ditu eta horren jarduketa gidatu eta koordinatuko du. Bata edo bestea ez badago, pertsona zaharrenak zuzenduko du.

**Artículo 29**

1.- La Junta Directiva quedará válidamente constituida cuando concurran en primera convocatoria la mitad más uno de sus miembros, y en segunda convocatoria cuando concurran al menos un 25% de sus miembros, y, en todo caso, el Presidente o Presidenta de la Federación ó el Vicepresidente o Vicepresidenta. Cuando la convocatoria haya sido instada por el 25% de los miembros de la Junta quedará válidamente constituida si concurren a la misma la mitad más uno de sus miembros.

2.- El Presidente o Presidenta de la Federación o, en su ausencia, el Vicepresidente o Vicepresidenta, presidirá las sesiones de la Junta Directiva y dirigirá y coordinará su actuación. En caso de ausencia de uno u otro u otra, la presidirá la persona de mayor edad.

**30. artikulua**

1.- Hona hemen Zuzendaritza Batzordeak bere kargua uzteko arrazoiak:

a) Presidenteari, edo, horri nahiz Zuzendaritza Batzordeari osotasunean zuzendutako zentsura-mozioa onesteagatik.

b) Adierazpen administratiboaren edo judizialaren ondoriozko desgaikuntzarengatik.

c) Presidenteak dimititzeagatik.

d) Kideen erdia baino gehiagok dimititzeagatik edo horiek hiltzeagatik, presidenteak dimititu dutenak edo hildakoak ordeztu ez baditu.

2.- Hona hemen Zuzendaritza Batzordeko kideek euren kargua uzteko arrazoiak:

a) Dimisioa.

b) Heriotza.

**Artículo 30**

1.- La Junta Directiva cesará por alguna de las siguientes causas:

a) Por aprobación de moción de censura formulada al Presidente o Presidenta, o a éste o ésta y conjuntamente a la Junta Directiva.

b) Por inhabilitación declarada administrativa o judicialmente.

c) Por dimisión del Presidente o Presidenta.

d) Por dimisión o fallecimiento de más de la mitad de sus miembros, en caso de que el Presidente o Presidenta no haya procedido a la sustitución de los dimitidos o fallecidos.

2.- Los miembros de la Junta Directiva cesarán por alguna de las siguientes causas:

a) Por dimisión.

b) Por fallecimiento.

c) Presidenteak bere kargua uztea.

d) Modu judizialean adierazitako ezgaikuntza.

e) Presidenteak horien karguak utzi dituenean.

3.- Presidenteak, Zuzendaritza Batzordeko kide batek edo gehiagok bere kargua utzi, borondatez dimititu, hil edo ezgaitu badira, plaza hutsak betetzeko beste pertsona batzuk izendatu ahal izango ditu. Izendapenok berretsi egin beharko dira Batzar Orokorraren lehen batzarrean.

**31. artikulua**

1.- Batzar Orokorrak presidentearen eta Zuzendaritza Batzordearen erantzukizuna zentsura-mozio baten bitartez eskatu ahal izango dute. Zentsura-mozio hori ondore horretarako antolatutako Batzar Orokorreko kideen gehiengo absolutuak onetsi beharko du.

2.- Zentsura-mozio horren onespenak Zuzendaritza Batzordeko kide guztien kargua uztea eragingo du, Federazioko presidentearen kargua uztea barne.

**32. artikulua**

1.- Zuzendaritza Batzordeko presidentearen kargua hutsik geratzen bada, horrek funtzioko presidentea izaten jarraituko du eta Hauteskunde Batzorderako deialdia egingo du, gehienez ere, hilabeteko epean, hauteskunde-prozesua hasi eta Zuzendaritza Batzordeak izendatuko duen presidentea aukeratzeko xedearekin.

2.- Hori egitea ezinezkoa bada, gutxienez Batzar Orokorreko kide guztien %5 ordezkatzen duen edozein kolektibok Hauteskunde Batzorderako deialdia egin ahal izango du.

**33. artikulua**

Federazioko idazkariak, gutxienez ere, hurrengo eginkizunak bete beharko ditu:

a) Batzar Orokorreko eta Zuzendaritza Batzordeko bileren aktak egitea.

b) Federazioaren liburuak eta gainerako agiriak zaintzea, kontabilitatekoak izan ezik.

c) Por cese del Presidente o Presidenta.

d) Por incapacitación declarada judicialmente.

e) Por ser cesados/as por el Presidente o Presidenta.

3.- El Presidente o Presidenta podrá, en caso de cese, dimisión voluntaria, fallecimiento o incapacitación de uno o más miembros de la Junta Directiva, nombrar a otras personas para ocupar las vacantes y tal designación deberá ser ratificada en la primera reunión que celebre la Asamblea General.

**Artículo 31**

1.- La Asamblea General podrá exigir la responsabilidad del Presidente o Presidenta y la de la Junta Directiva mediante la adopción de una moción de censura que deberá ser respaldada por la mayoría absoluta de los miembros de la Asamblea General en una sesión convocada al efecto.

2.- La aprobación de la moción de censura causará el cese de todos los miembros de la Junta Directiva, incluido el Presidente o Presidenta de la Federación.

**Artículo 32**

1.- Cuando quede vacante el cargo de Presidente o Presidenta o la Junta Directiva cese, ésta seguirá en funciones y procederá a convocar una reunión de la Junta Electoral, en el plazo máximo de un mes, para que dé inicio al proceso electoral eligiéndose otro Presidente o Presidenta que designará su propia Junta Directiva.

2.- No siendo ello posible, cualquier colectivo de miembros de la Asamblea General de la Federación que represente al menos un 5% del total de componentes de la misma, podrá convocar a la Junta Electoral.

**Artículo 33**

El Secretario o Secretaria de la Federación tendrá encomendadas, como mínimo, las siguientes funciones:

a) Levantar acta de las reuniones de la Asamblea General y de la Junta Directiva.

b) Cuidar de los libros y demás documentos de la Federación, salvo los de contabilidad.

c) Aipatu liburuen edukiari buruz bidezkoak diren ziurtagiriak luzatzea.

c) Expedir los certificados que procedan sobre el contenido de los citados libros.

**34. artikulua**

Federazioko diruzainak, gutxienez, hurrengo eginkizunak bete beharko ditu:

a) Federazioaren ordena ekonomikoaren kontuak eta eragiketak zuzentzea.

b) Federazioaren kontabilitate-liburuak zaindu eta horiek eramatea.

c) Beharrezkoak diren kontabilitate-agiri guztiak prestatzea, bereziki, urteko aurrekontuaren zirriborroa eta ekitaldi bakoitzaren kontuak, Batzar Orokorrak horiek ostean aztertu eta onets ditzan.

**Artículo 34**

El Tesorero o Tesorera de la Federación tendrá encomendadas, como mínimo, las siguientes funciones:

a) Dirigir las cuentas y las operaciones de orden económico de la Federación.

b) Custodiar y llevar los libros de contabilidad de la Federación.

c) Preparar todos los documentos contables necesarios, en especial, el borrador del presupuesto anual y las cuentas de cada ejercicio, para su posterior examen y aprobación por la Asamblea General.

## III. KAPITULUA
## PRESIDENTEA

**35. artikulua**

Federazioko presidenteak lege-ordezkaritza bere gain hartu du, Batzar Orokorrak eta Zuzendaritza Batzordeak hartutako akordioak betearazten ditu eta horrek egiten dituen bilerak gidatzen ditu, eta baita kalitatezko botoarekin berdinketak ebatzi ere.

**36. artikulua**

1.- Federazioko presidentea Batzar Orokorrak aukeratutako pertsona izango da.

2.- Presidenteak bere kargua arrazoi hauen ondorioz utziko du:

a) Dimisioa.

b) Zentsura-mozioaren onespena.

c) Bide administratiboaren edo judizialaren bidez adierazitako desgaikuntza edo ezgaikuntza.

d) Heriotza.

2.- Presidenteak bere kargua uzten badu, hautaketa berria egin beharko da. Hori gertatzen bada, funtzioko Zuzendaritza Batzordea izaten jarraituko du eta

## CAPÍTULO III
## PRESIDENTE O PRESIDENTA

**Artículo 35**

El Presidente o Presidenta de la Federación asume la representación legal de la misma, ejecuta los acuerdos adoptados por la Asamblea General y por la Junta Directiva, preside y dirige las sesiones que celebra una y otra y decide, en caso de empate con su voto de calidad.

**Artículo 36**

1.- Será Presidente o Presidenta de la Federación aquélla persona que haya resultado elegida por la Asamblea General.

2.- El Presidente o Presidenta cesará por alguna de las siguientes causas:

a) Por dimisión.

b) Por aprobación de moción de censura.

c) Por inhabilitación o incapacitación declarada administrativa o judicialmente.

d) Por fallecimiento.

2.- En el supuesto de cese del Presidente o Presidenta deberá procederse a una nueva elección. En tal caso, la Junta Directiva seguirá en funciones y procederá a convocar a la Junta

Hauteskunde Batzordea gehienez hilabeteko epean deituko du. Epe hori igaro ondoren deialdirik egin ez bada, gutxienez Batzar Orokorreko kide guztien %5 ordezkatzen duen edozein kolektibok Hauteskunde Batzorderako deialdia egin ahal izango du.

Electoral en el plazo máximo de un mes. Transcurrido dicho plazo sin tal convocatoria, cualquier colectivo de miembros de la Asamblea General que represente al menos un 5% del total de componentes de la misma, podrá convocar a la Junta Electoral.

**37. artikulua**

1.- Lehendakaria berriz aukeratua izan deiteke, baina mandatuen denbora-muga bata bestearen osteko bost mandatukoa izango da. Mandatuen muga hau gainditu ostean ezin izango da lehendakari kargurako aukeratua izan mandatu bateko tartean.

Mandatuen mugapenak ez die eragingo estatutu hauek indarrean sartzeko unean dauden karguei eta berauek, ondorioz, oraingo mandatuak amaitu ahal izango dituzte. Estatutuetako mandatuen mugapenak hurrengo hauteskunde-prozesuei aplikatuko zaizkie.

2.- Beste hautagaitzarik ez balego, Lehendakaria berriz aurkez daiteke hautagaitzarako.

**Artículo 37**

1.- El Presidente o Presidenta podrá ser reelegido, pero el límite de mandatos será de cinco mandatos consecutivos. Agotados los cinco mandatos consecutivos no podrá ser elegido para el cargo de Presidente o Presidenta en el plazo de un mandato.

Las limitaciones de mandatos no afectarán a ninguno de los cargos existentes a la entrada en vigor de estos estatutos y dichos cargos podrán, en consecuencia, finalizar sus actuales mandatos. Sólo serán de aplicación las citadas limitaciones estatutarias para próximos procesos electorales.

2.- En el caso de no haber otra candidatura, el Presidente o Presidenta podrá volver a presentarse a la reelección.

## IV. KAPITULUA
## XEDAPEN ERKIDEAK

## CAPÍTULO IV
## DISPOSICIONES COMUNES

**38. artikulua**

Estatutu hauen 13. artikuluan ezarri organoko kideek eginkizunak beteko dituzte euren ondorengoek karguaz jabetu arte.

**Artículo 38**

Las y los miembros de los órganos contemplados en el art. 13 de los presentes estatutos continuarán en el ejercicio de sus funciones hasta la toma de posesión de sus sucesores.

**39. artikulua**

1.- Bizkaiko Saskibaloi Federazioaren kide anitzeko organoen akordioak bertaratutako kideen gehiengo soilaren bidez hartuko dira, salbu eta lege edo estatutu-xedapenetan gehiengo kualifikatuak ezartzen direnean.

2.- Kide guztiek beren beregi onartzen dutenean, Bizkaiko Saskibaloi Federazioaren kide anitzeko organoek euren akordioak helbide elektronikoaren bidez, faxez, bideokonferentziaren edo antzeko baliabide teknikoen bidez hartu ahal izango dituzte. Kasu horietan, kasuan kasuko akta fax, helbide elektroniko eta euskarri egokien egiaztagiriekin batera idatziko da.

**Artículo 39**

1.- Los acuerdos de los órganos colegiados de la Federación Vizcaína de Baloncesto se adoptarán por mayoría simple de miembros presentes, salvo en los supuestos en los que disposiciones legales o estatutarias prevean mayorías cualificadas.

2.- Siempre que lo acepten expresamente todos sus miembros, los órganos colegiados de la Federación Vizcaína de Baloncesto podrán adoptar sus acuerdos mediante correo electrónico, fax, videoconferencia y medios técnicos análogos. En estos supuestos, el acta correspondiente se redactará acompañada de los justificantes de los fax, correos electrónicos y soportes correspondientes.

**40. artikulua**
Hona hemen Bizkaiko Saskibaloi Federazioaren Batzar Orokorreko edo Zuzendaritza Batzordeko kide izateko betekizunak:

a) Adin-nagusitasuna eskuratzea.

b) Administrazio-egoitza izatea Federazioaren eremuan. Salbuespeneko inguruabarretan, Batzar Orokorrak betekizun hori bete gabe utz dezake.

c) Karguak edo eginkizunak betetzeko desgaikuntza dakarren diziplina-zehapen irmorik ez izatea.

d) Kargu publikoa betetzeko desgaikuntza dakarren epai judizial irmoaren bidez kondenatua ez izatea.

e) Erabaki judizial irmoaren bidez ezgai ez adieraztea.

**Artículo 40**
Son requisitos para ser miembro de la Asamblea General o de la Junta Directiva de la Federación Vizcaína de Baloncesto, los siguientes:

a) Haber alcanzado la mayoría de edad.

b) Poseer la vecindad administrativa dentro del ámbito de actuación de la Federación. En circunstancias excepcionales la Asamblea General podrá dispensar de este requisito.

c) No estar sujeto a sanción disciplinaria firme que conlleve inhabilitación para el desempeño de cargos o funciones.

d) No haber sido condenado mediante sentencia judicial firme que conlleve la inhabilitación para ostentar cargo público.

e) No haber sido declarado incapaz por decisión judicial firme

**41. artikulua**
1.- Federazioko organoek hartutako akordioei dagokienez idazkariak akta egingo du eta gutxienez puntu hauek jasoko dira: parte hartu duen pertsonen izena, bileraren tokia eta epea, eztabaidaren puntu nagusiak, bozketaren forma eta emaitza eta akordioen edukia.

2.- Hartutako akordioen aurkako botoak, baldin eta hori ziodunak badira, kide anitzeko organoen erabakien ondorioz sor daitekeen erantzukizunetik salbuetsiko dute.

**Artículo 41**
1.- De todos los acuerdos adoptados por los órganos federativos se levantará acta por el Secretario o Secretaria, que contendrá con carácter mínimo, el nombre de las personas que hayan intervenido, las circunstancias de lugar y tiempo en que la reunión se haya celebrado, los puntos principales de deliberación, la forma y el resultado de la votación y el contenido de los acuerdos.

2.- Los votos contrarios al acuerdo adoptado, siempre que sean motivados, eximirán de la responsabilidad que pudiera derivarse de las decisiones de los órganos colegiados.

**42. artikulua**
Bizkaiko Saskibaloi Federazioko Zuzendaritza Batzordeak egokitzat jotako batzordeak eta gainerako antzeko organoak eratu ahal izango ditu, bai Federazioko kirol-jardueraren sektore bat garatzeko beharrezkoak direnak bai Federazioa osatzen duten kolektiboen edo estamentuen funtzionamendurako beharrezkoak direnak.

**Artículo 42**
La Junta Directiva de la Federación Vizcaína de Baloncesto podrá constituir cuantos comités y demás órganos análogos considere oportuno, tanto aquellos que respondan al desarrollo de un sector de la actividad deportiva de la Federación, como los que atiendan al funcionamiento de colectivos o estamentos integrantes de la Federación.

**43. artikulua**
1.- Bizkaiko Saskibaloi Federazioan dopajeari begira aplikatu beharreko arauketa ezartzen duten organoak egon beharko dira.

**Artículo 43**
1.- La Federación Vizcaína de Baloncesto deberá contar con los órganos que establezca la normativa aplicable en materia de dopaje.

2.- Bizkaiko Saskibaloi Federazioan batzorde teknikoa egon beharko da. Batzorde horrek Federazioko zuzendaritza teknikoa eta kirol-zuzendaritza bere gain hartzen ditu.

2.- La Federación Vizcaína de Baloncesto contará con un comité técnico que será el órgano que asuma la dirección técnico-deportiva de la Federación.

3.- Halaber beste Batzorde batzuk ere egon daitezke Federazioaren kudeaketa egokia bermatuko dutenak, eta kasuan-kasuko Araudiak garatuko dituztenak.

3.- Igualmente podrá contar con otros Comités que se estimen convenientes para la buena marcha de la Federación y que se desarrollarán en los Reglamentos que correspondan.

**44. artikulua**

Bizkaiko Saskibaloi Federazioko zuzendariek hurrengo eskubideak dituzte:

**Artículo 44**

Los directivos y directivas de la Federación Vizcaína de Baloncesto tienen los siguientes derechos:

a) Eusko Jaurlaritzarengandik eta Bizkaiko Foru Aldundiarengandik federazioetako Zuzendaritza-arloko langileen prestakuntza iraunkorra eta eginkizunak behar bezala betetzeko doako aholkularitza teknikoa jasotzea.

a) Recibir del Gobierno Vasco y Diputación Foral de Bizkaia la formación permanente del personal directivo o directiva de las federaciones y el asesoramiento técnico gratuito para el correcto desempeño de sus funciones.

b) Jarduerak egin ondoren sortutako gastuen ordainketa jasotzea, Federazioak aurretiaz ezarri mugen barruan.

b) Ser reembolsados por los gastos realizados en el desempeño de sus actividades dentro de los límites previamente establecidos por la propia Federación.

c) Federazioaren bidez aseguru bat izatea, borondatezko jardueraren ondorioz zuzenean sortutako istripu-arriskuei eta erantzukizun zibilari aurre egiteko.

c) Disponer de un seguro, a través de la Federación, contra los riesgos de accidente y responsabilidad civil derivados directamente del ejercicio de la actividad voluntaria.

d) Jarduera duintasun-, segurtasun- eta higiene-baldintza egokietan egitea, eginkizunen izaera eta ezaugarriak kontuan hartuta.

d) Realizar su actividad en las debidas condiciones de dignidad, seguridad e higiene en función de la naturaleza y características de sus funciones.

e) Zuzendari-izaeraren egiaztapena izatea.

e) Disponer de una acreditación identificativa de su condición de directivo o directiva.

f) Kirol-arloan izandako gizarte-kontribuzioaren ondoriozko aintzatespena lortzea.

f) Obtener el respeto y el reconocimiento por su contribución social en el campo del deporte.

g) Federazioko Zuzendaritza-organoetan parte hartzeko beharrezkoa den informazioa eta agiriak izatea.

g) Disponer de la información y documentación precisa para su participación en los órganos directivo o directivas de la Federación.

h) Atxikitako eginkizunak behar bezala betetzeko beharrezkoak diren baliabide materialak modu iraunkorrean jasotzea.

h) Recibir con carácter permanente los medios materiales necesarios para el correcto ejercicio de las funciones que se les asignen.

i) Federazioaren arauetan ezarritako bestelakoak.

i) Cualesquiera otros previstos en las normas de la Federación.

**45. artikulua**

Bizkaiko Saskibaloi Federazioko zuzendariek puntu hauek bete beharko dituzte:

a) Bidezkoa denean, eginkizunak betetzean jasotako informazio ezagunaren isil-gordeari eustea. Isil-gordearen betebeharrak kargua utzi ondoren ere iraun egingo du.

b) Eginkizunak arreta egokiarekin betetzea, une oro Federazioaren estatutuen helburuari helduta.

c) Kasuan kasuko kirol-federazioek eskainitako baliabide materialak errespetatu eta zaintzea

d) Federazioekin batera hartutako konpromisoak betetzea.

e) Eginkizunak arreta egokiarekin betetzeko antolatzen diren prestakuntza-jarduenetan parte hartzea.

f) Urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan debekatutako edozein motatako kontraprestazio ekonomikoa ezeztatzea.

g) Eginkizunak betetzen jarraitzea euren ondorengoak karguaz jabetu arte, ezinbesteko kasua izan ezik.

h) Organo eskudunek hartutako akordioak eta ebazpenak betetzea.

i) Irtengo duten zuzendarien ordezko zuzendari berriei beharrezkoak diren agiri eta informazio guztiak ematea.

j) Interes pertsonala duten gaien eztabaidetara ez agertzea edo bertan ez esku hartzea. Ulertuko da interes pertsonala dagoela gaiak zuzendariaren ezkontidearengan edo antzeko afektibotasun-harremanak dituztenengan edo ondorengo nahiz aurrekoengan edo zuzendaritza-kargua bete edota parte-hartze garrantzitsua duen sozietatearen gain eragina duenean.

k) Zein organoko kide izan eta organo horren

**Artículo 45**

Los directivos y directivas de la Federación Vizcaína de Baloncesto están obligados a:

a) Guardar, cuando proceda, confidencialidad de la información recibida y conocida en el desarrollo de sus funciones. La obligación de confidencialidad subsistirá aun cuando hayan cesado en el cargo.

b) Actuar con la debida diligencia en el ejercicio de sus funciones, ateniéndose en todo momento a los fines estatutarios de la Federación.

c) Respetar y cuidar los recursos materiales que pongan a su disposición las correspondientes federaciones deportivas.

d) Cumplir con los compromisos adquiridos con la Federación.

e) Participar en las actividades formativas que se organicen para el diligente cumplimiento de sus funciones.

f) Rechazar cualquier tipo de contraprestación económica prohibida en el Decreto 16/2006, de 31 de enero.

g) Continuar en el ejercicio de sus funciones hasta la toma de posesión de sus sucesores, salvo fuerza mayor.

h) Acatar los acuerdos y resoluciones adoptados por los órganos competentes.

i) Proporcionar toda la documentación e información necesaria a las y los nuevos directivo o directivas que vayan a sustituir a las y los salientes.

j) Abstenerse de asistir e intervenir en las deliberaciones que afecten a asuntos en los que tengan interés personal. Se considerará que existe interés personal cuando el asunto afecte al cónyuge del directivo o directiva o a personas vinculadas por análoga relación de afectividad o sus descendientes o ascendientes o a una sociedad en la que desempeñe un puesto directivo o directiva o tenga una participación significativa.

k) Asistir a las reuniones de los órganos de que

bileretara agertzea eta eztabaidetan forma aktiboan parte hartzea, bere irizpidea erabaki egokiak hartzeko baliagarria izan dadin.

forme parte y participar activamente en sus deliberaciones a fin de que su criterio contribuya en la toma de decisiones adecuadas.

l) Emandako akreditazioa behar bezala erabiltzea.

l) Utilizar debidamente la acreditación proporcionada.

m) Federazioak, hala denean, onetsitako Kode Etikoa betetzea.

m) Cumplir el Código Ético que, en su caso, se apruebe por la Federación.

n) Federazioko estatutuetan edo arauetan aurreikusitako beste edozein puntu.

n) Cualesquiera otras previstas en las normas estatutarias o reglamentarias de esta Federación.

**46. artikulua**

1.- Kirol-federazioko presidentearen kargua ez da bateragarria beste kirol-federazioko presidentearen karguarekin, kirol-modalitate ezberdina izan arren.

**Artículo 46**

1.- El cargo de Presidente o Presidenta de la Federación deportiva es incompatible con el cargo de Presidente o Presidenta de otra Federación deportiva, aunque sea de una modalidad deportiva diferente.

2.- Kirol-federazioko presidentearen kargua ez da bateragarria klub, kirol-talde edo bertan dagoen beste erakunde-mota bateko presidente edo ordezkariaren karguekin. Federazioko presidenteak Batzarrera klub, kirol-talde edo beste mota bateko erakundeko presidente gisa agertu denean, edo presidentearen kargurik izan gabe ordezkari gisa jardun duenean, klub, kirol-talde edo erakundeko presidente edo ordezkari izatetik dimititu beharko du.

2.- El cargo de Presidente o Presidenta de la Federación deportiva es incompatible con el de Presidente o Presidenta o representante de un club, de una agrupación deportiva u otro tipo de entidad integrado en la misma. Cuanto el Presidente o Presidenta de la Federación haya concurrido a la Asamblea como Presidente o Presidenta de un club, agrupación deportiva o entidad de otro tipo, o haya concurrido como representante aun cuando no ostente la Presidencia, deberá dimitir como Presidente o Presidenta o representante del club, agrupación deportiva o entidad.

3.- Federazioko presidentearen kargua ez da bateragarria Euskadiko Autonomia Erkidegoko Foru Administrazio eta Administrazio Nagusiaren federazio-eremuarekin zuzenean lotutako kargu edo enplegu publikoekin.

3.- La Presidencia de la Federación deportiva será incompatible con el desempeño de cargos o empleos públicos directamente relacionados con el ámbito federativo dentro de la Administración Foral y General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

4.- Federazioko zuzendaritza-kargua ez da bateragarria gomendio eta aholkularitza profesionalaren eginkizunekin. Era berean, kirol-federazioko zuzendaritza-kargua ez da bateragarria lan-, zibil- edo merkataritza-kontratuaren bidezko zerbitzuak emateko jarduerekin.

4.- El cargo directivo o directiva de la Federación es incompatible con el ejercicio de funciones de consejo o asesoramiento profesional a la misma. Asimismo, el cargo directivo o directiva de la Federación deportiva es incompatible con la prestación de servicios profesionales bajo relación laboral, civil o mercantil a la misma.

**47. artikulua**

Hona hemen Bizkaiko Saskibaloi Federazioko Zuzendaritza-arloko langileen

**Artículo 47**

El personal directivo de la Federación Vizcaína de Baloncesto tiene prohibido:

debekuak:

a) Kalte-ordainak jasotzea kargua laga edo dimititu ostean.

b) Hirugarren pertsonengandik edo erakundeengandik komisioak edo antzeko mozkinak jasotzea, kirol-erakundeak kontratatutako ondasun eta zerbitzuen ondorioz.

c) Pizgarriak jasotzea, kirol- eta ekonomia-arloko helburuak eskuratzearen ondorioz.

d) Enpresen bidez edo hirugarren pertsonen edo erakundeen izenean kirol-federazioarekin kontratatzea. Autokontratazio horren barruan ezkontideen enpresak, antzeko afektibotasun-harremanak dituzten pertsonak eta ondorengoak nahiz aurrekoak sartzen dira.

e) Kirol-federazioaren ondarea erabiltzea edo lanpostuaz baliatzea ondare-abantaila eskuratzeko.

a) Percibir indemnizaciones tras el cese o dimisión en el cargo.

b) Percibir comisiones o beneficios análogos de terceras personas o entidades por la contratación de bienes y servicios por la entidad deportiva.

c) Percibir incentivos por la consecución de objetivos deportivos o económicos.

d) Contratar, a través de sus empresas o en nombre de terceras personas o entidades, con la propia Federación deportiva. Tal interdicción de autocontratación alcanza a las empresas de sus cónyuges, personas vinculadas con análoga relación de afectividad y de sus descendientes o ascendientes.

e) Hacer uso del patrimonio de la Federación deportiva o valerse de su posición en la misma para obtener una ventaja patrimonial.

## IV. TITULUA
## FEDERAZIOKO ESTAMENTUAK

**48. artikulua**
Bizkaiko Saskibaloi Federazioko estamentuetako kideek, gutxienez, eskubide hauek izango dituzte:

a) Federazioko organoak ordezkatu eta horietan parte hartzea, estatutu hauek eta aplikatu beharreko arauketan ezarri moduan eta proportzioan.

b) Federazioak antolatutako jardueretan parte hartzea, horri buruz emandako erregelen arabera.

c) katutako informazioa jasotzea eta Federazioarekin zerikusia duten gaietan irizpideak eta iritziak askatasunez ematea, kirol hori behar bezala garatu dadin.

d) Federazioko organo eskudunengana jotzea Federazioko arauak bete ahal izateko.

e) Federazioko arauen arabera egokitzat jotako kontsultak eta erreklamazioak helaraztea.

## TÍTULO IV
## ESTAMENTOS FEDERATIVOS

**Artículo 48**
Los integrantes de los estamentos de la Federación Vizcaína de Baloncesto tendrán, como mínimo, los siguientes derechos:

a) Estar representados y formar parte de los órganos federativos en la forma y proporción que les reconocen los presentes estatutos y la normativa aplicable.

b) Participar en cuantas actividades organice la Federación, conforme a las reglas que ésta dicte al respecto.

c) Recibir cuanta información soliciten y expresar libremente sus criterios y opiniones en temas federativos para el mejor desarrollo de este deporte.

d) Acudir a los órganos federativos competentes para instar el cumplimiento de las normas federativas.

e) Elevar las consultas y reclamaciones que estimen pertinentes conforme a las normas de la Federación.

f) Lizentzia egiaztatzen duen agiria izatea.

f) Disponer del documento justificativo de la licencia.

**49. artikulua**

Bizkaiko Saskibaloi Federazioko estamentuetako kideek hurrengo betebeharrak bete beharko dituzte:

a) Ezarritako kuotak ordaintzea.

b) Federazioko organoak hartutako baliozko akordioak betetzea, baldin eta organo eskudunak horiek deuseztatu edo eteten ez baditu.

c) Federazioaren helburuak lortzeko, modu aktiboan lankidetzan jardutea.

d) Betetzen dituzten karguei datxezkien betebeharrak leial betetzea.

e) Bizkaiko selekzioen deialdietara agertzea, kirol-txapelketan parte hartzeko edo horiek prestatzeko.

**Artículo 49**

Los integrantes de los estamentos de la Federación Vizcaína de Baloncesto tendrán los siguientes deberes:

a) Pagar las cuotas que se establezcan.

b) Cumplir todos los acuerdos válidamente adoptados por los órganos federativos en tanto no sean anulados o suspendidos por el órgano competente.

c) Colaborar activamente en la consecución de los fines de la Federación.

d) Cumplir fielmente las obligaciones inherentes a los cargos que en su caso desempeñen.

e) Asistir a las convocatorias de las selecciones Bizkainas para la participación en competiciones deportivas o para la preparación de las mismas.

**50. artikulua**

Estatutu hauen ondoreetarako, kirol-klubak edo taldeak Euskadiko Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen III. tituluan ezarritakoaren arabera eratuko dira.

**Artículo 50**

A los efectos de los presentes estatutos, son clubes o agrupaciones deportivas las asociaciones constituidas con arreglo a lo previsto en el Título III de la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco.

**51. artikulua**

Klubek eta taldeek, Bizkaiko Saskibaloi Federazioak antolatu eta baimendutako txapelketa ofizialetan parte hartu ahal izateko, kasuan kasuko lizentzia izan beharko dute.

**Artículo 51**

Los clubes y agrupaciones deportivas, para la participación en competiciones oficiales organizadas o autorizadas por la Federación Vizcaína de Baloncesto, deberán adscribirse a esta Federación y obtener la correspondiente licencia federativa.

**52. artikulua**

Bizkaiko Saskibaloi Federazioko kirolariak kirolarien estamentuari dagokion federazioaren lizentzia egokia duten pertsona fisikoak izango dira.

**Artículo 52**

Son deportistas de la Federación Vizcaína de Baloncesto las personas físicas titulares de la licencia federativa correspondiente al estamento de deportistas.

**53. artikulua**

1.- Bizkaiko Saskibaloi Federazioko teknikariak Federazioak edo indarreko legeriak eskatutako titulua eta estamentu horretako federazioaren lizentzia egokia duten pertsonak izango dira.

**Artículo 53**

1.- Son técnicas y técnicos de la Federación Vizcaína de Baloncesto las personas en posesión del título exigido por la Federación o la legislación vigente y que ostenten la correspondiente licencia federativa de este

estamento.

**54. artikulua**
1.- Bizkaiko Saskibaloi Federazioko epaileak erakunde eskudunak igorritako beharrezko titulua eta federazioaren lizentzia egokia duten pertsona fisikoak izango dira.

2.- Epaileak, hala denean, Federazioko epaileen elkargoan bilduko dira.

**Artículo 54**
1.- Son juezas y jueces de la Federación Vizcaína de Baloncesto las personas físicas en posesión de la titulación necesaria emitida por el organismo competente y de la correspondiente licencia federativa.

2.- Las juezas y jueces se agruparán, en su caso, en el Comité de Arbitros de la Federación.

## V. TITULUA
## DIZIPLINA-ARAUBIDEA

## TÍTULO V
## RÉGIMEN DISCIPLINARIO

**55. artikulua**
Bizkaiko Saskibaloi Federazioko diziplina-araubideari dagokionez, urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuaren ondoriozko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen X. tituluan ezarritakoa edo hori ordezten duen xedapenean, estatutu hauetan eta Federazioaren Kirol Diziplinaren Arautegian ezarritakoa aplikatuko da.

**Artículo 55**
El régimen disciplinario de la Federación Vizcaína de Baloncesto se regirá por lo dispuesto en el Título X de la Ley 14/1998, de 11 de junio, por el Decreto 7/1989, de 10 de enero, o disposición que lo sustituya, por los presentes estatutos y por el Reglamento de Disciplina Deportiva de la propia Federación.

**56. artikulua**
1.- Bizkaiko Saskibaloi Federazioak diziplina-ahala egitura organikoaren zati diren pertsonen gain eta horretan afiliatutako pertsona fisiko edo juridiko guztien gain soilik egikarituko du.

2.- Federazioak ezin izango du egikaritu diziplina-ahala beste lurralde-eremu eta kirol-jarduera bereko federazioko kideen gain, kirol-jarduera Bizkaiko Lurralde Historikoan garatu arren.

**Artículo 56**
1.- La Federación Vizcaína de Baloncesto sólo tendrá potestad disciplinaria sobre todas las personas que formen parte de su estructura orgánica y sobre todas aquellas personas físicas o jurídicas afiliadas a la misma.

2.- La Federación no podrá ejercer la potestad disciplinaria respecto a aquellos miembros de federaciones de otros ámbitos territoriales y de la misma actividad deportiva, aunque desarrollen su actividad deportiva en el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia.

**57. artikulua**
1.- Diziplina Batzordea Bizkaiko Saskibaloi Federazioko organoa da eta horrek kirol-arloko diziplina-ahala egikaritzen du federazioko gainerako organoak kontuan hartu gabe.

2.- Diziplina Batzordea Bizkaiko Saskibaloi Federazioaren esparruan arituko da.

**Artículo 57**
1.-El Comité de Disciplina es el órgano de la Federación Vizcaína de Baloncesto que ejerce la potestad disciplinaria deportiva con independencia de los demás órganos federativos.

2.- El Comité de Disciplina será el encargado de las actuaciones dentro del ámbito de la Federación Bizkaina de Baloncesto.

**58. artikulua**
1.- Diziplina Batzordea Zuzendaritza Batzordeak izendatutako pertsona kopuru bakoitiak osatuko du. Hala ere pertsona

**Artículo 58**
1.- El Comité de Disciplina estará compuesto por un número impar de miembros nombrados por la Junta Directiva. Podrá ser un órgano

bakarreko organoa ere izan daiteke.

2.- Diziplina Batzordeko kideak presidenteak aukeratuko ditu lau (4) urterako eta eginkizun hori betetzeko beharrezkoak diren ezagutza zehatzak izan beharko dituzte. Ohiko deialdian Batzar Orokorrak barretsi beharko ditu izendapenok.

3.- Diziplina Batzordeko kideak kargutik kendu daitezke federazioko lehendakariak hala nahi izanez gero.

4.- Diziplina Epailearen eginkizunak ezin izango dituzte bete Zuzendaritza Batzordeko kideek.

**59. artikulua**
Diziplina Epaileak hartutako erabakiak zuzenean Euskal Saskibaloi Federazioaren Apelazio Batzordean aurkaratu ahal izango dira.

## VI. TITULUA
## HAUSTEKUNDE ARAUBIDEA

**60. artikulua**
Bizkaiko Saskibaloi Federazioko hauteskunde-araubideari dagokionez, urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren VII. tituluan, hori garatzen duten xedapenetan, estatutu hauetan eta Federazioko Batzar Orokorrak onetsi beharko duen Hauteskunde Arautegian ezarritakoa aplikatuko da.

**61. artikulua**
Federazioko Batzar Orokorra aukeratzeko, hauteskunde-kidegoa federazioko estamentu bakoitzaren lizentzien titularrek osatuko dute, kasuan kasuko Hauteskunde Arautegian zehaztutako baldintzetan.

Hautesleen eta hautagarrien izaera Euskadiko Kirol Federazioen Dekretuan, estatutu hauetan eta Federazio honetako Hauteskunde Arautegian xedatutakora egokituko da.

**62. artikulua**
Federazioan Hauteskunde Batzordea egongo

impersonal.

2.- Los miembros del Comité de Disciplina serán nombrados por el Presidente o Presidenta para cuatro (4) años y deberán reunir conocimientos suficientes para desempeñar el cargo. Dicho nombramiento deberá ser ratificado por la Asamblea General en su siguiente convocatoria ordinaria.

3.- Los miembros del Comité de Disciplina podrán ser removidos de sus cargos a criterio del Presidente o Presidenta de la Federación.

4.- Los miembros del Comité de Disciplina no podrán ser miembros de la Junta Directiva.

**Artículo 59**
Las decisiones que adopte el Comité de Disciplina serán impugnables ante e Comité de Apelación de la Federación Vasca de Baloncesto.

## TÍTULO VI
## RÉGIMEN ELECTORAL

**Artículo 60**
El régimen electoral de la Federación Vizcaína de Baloncesto se regirá por lo dispuesto en el Título VII del Decreto 16/2006, de 31 de enero, por las disposiciones que se dicten en desarrollo del mismo, por los presentes estatutos y por el correspondiente Reglamento electoral que deberá ser aprobado con carácter obligatorio por la Asamblea General de la Federación.

**Artículo 61**
Para la elección de la Asamblea General de la Federación Vizcaína de Baloncesto el cuerpo electoral estará compuesto por los titulares de licencias de todos y cada uno de los estamentos federativos, en las condiciones que se señale en el correspondiente Reglamento Electoral.

La condición de electores y elegibles se ajustará a lo dispuesto en el Decreto de Federaciones Deportivas del País Vaso, en los presentes Estatutos y en el Reglamento Electoral de esta Federación.

**Artículo 62**
En la Federación Vizcaína de Baloncesto

da eta horrek hauteskunde-prozesua bultzatzeaz gain, horren garapen egokia zainduko du. Hauteskunde Batzordea hauek osatuko dute: hiru kidek, batek presidente gisa jardunez eta beste batek idazkari gisa jardunez. Horiek kideen artean izendatuko dira eginkizunok betetzeko, eta, horien artean izendatzen ez badira, presidentea zaharrena izango da eta idazkaria gazteena.

existirá una Junta Electoral encargada de impulsar el proceso electoral y velar por su correcto desarrollo. La Junta Electoral estará formada por tres miembros, actuando uno de ellos como Presidente o Presidenta y otro como Secretario o Secretaria, cargos que serán elegidos entre los propios miembros para asumir dichas funciones y, en caso de no designarse entre ellos, actuará como Presidente o Presidenta el de mayor edad y como Secretario o Secretaria el de menor edad.

**63. artikulua**
Hauteskunde Batzordearen eginkizunen iraupena lau urtekoa izango da, Batzar Orokorrak hori ordeztu eta epealdia amaitu aurretik beste bat izendatzeari kalterik egin gabe.

**Artículo 63**
El ejercicio de las funciones de la Junta Electoral tendrá una duración de cuatro años, sin perjuicio de que la Asamblea General pueda destituirla y nombrar otra antes de la conclusión de dicho periodo.

**64. artikulua**
1. Hauteskunde Batzordeko kideak eta ordezkoak Batzar Orokorrak izendatuko ditu hauteskunde-prozesua hasi aurreko azken Ohiko Batzarrean edo zozketa bidez, betiere hautagaiak izango ez diren pertsonen artean, inor aurkezten ez bada.

2. Ezin izango dira Hauteskunde Batzordeko kide izan hautagai gisa aurkezten diren pertsonak; baldintza hori izendatutako Hauteskunde Batzordeko kideetatik edozeinek betetzen badu, orduan kargua utzi eta izendatutako ordezkoa jarri beharko da.

**Artículo 64**
1.- Los miembros de la Junta Electoral, así como los suplentes, serán elegidos por la Asamblea General en la última Asamblea Ordinaria previa al inicio del proceso electoral o por sorteo público entre las personas que no vayan a ser candidatas o candidatos, en el caso de no presentarse nadie.

2.- En ningún caso podrán formar parte de la Junta Electoral los que fueran a presentarse como candidatos; si esta condición recayese en alguno de los componentes de la Junta Electoral nombrada, deberá cesar y ocupar su lugar el suplente designado.

**65. artikulua**
